

BIZIPREST: ALDAKETARAKO GOGOA



1. Azalpena

Jardueraren helburua da ikasleei hizkuntza harremanak gaztelaniatik euskara aldatzeko adibide eta erreferenteak eskaintzea.

2. Jarraibideak

Familiak edo eskolak bezala, bizilekuak baldintza dezake euskaldunen biografia linguistikoa. Euskaraldiaren testuinguruan 2020. urtean grabatutako dokumental honetan Tuterako Mirenen, Berako Iñakiren, Iruñeko Iñigoren eta Frantzia jaioetako Yasmineraren bizipenak entzuten dituzue, baita euskarak haiengan duen garrantziaz eta euskaraz bizitzeko egunero berresten duten erabakiaz esandakoa ere.

Lau talde osatu. Bideoa ikustean, talde bakoitzak protagonista bati jarraituko dio eta bere pentsamendu, motibazio eta esperientzia nagusiak jasoko ditu. Amaitzean, taldean adostu pertsona hori definitzen dituen lau hitz edo esaldi labur eta ikaskideei azaldu.



[Biziprest. Gehiago gara](#)¹ (31 min)

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=kPdUQ0Ay2PQ>

3. Oharrak

3. 2. Moldaketa

Denboraren eta irakasleak lortu nahi duen helburuaren arabera, proposatutako ariketa borobil daiteke dokumentalean agertzen diren pertsonen adierazitako bizipenen eta ikasleen esperientzien arteko zubia eginez.

Dokumentaleko lau protagonisten profila sortu eta gero, honakoak izan daitezke ikasleen ikuspuntura hurbiltzeko galderak: Norekin identifikatzen zarete zuek? Nor dago zuen esperientziatik hurbilago?